

INFORMAZIO OHARRA

Adostasunaren bidean eskola-segregazioari erantzuteko

- *Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak deituta, hezkuntza sistematik segregazioari erantzuteko jardunaldi bat antolatu dute martxoaren 4an*
- *“Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua, erronkak kudeatzeko proposamenak” txostena izango da jardunaldiaren ardatz nagusietako bat, jendartearen ahotsak eta eragiteko aukerak biltzen direlarik bertan*

Bilbo, 2023ko martxoak 2. Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak larunbat honetan, hilaren 4an, “Askotariko segregazioari nola erantzun hezkuntza sistematik? Ulermen partekatua eta erronkak kudeatzeko proposamenak” jardunaldia antolatu dute, eskola segregazioari aurka egiteko prozesuan mugarria izango dena.

Segregazioa XXI. mendeko euskal gizartearen erronka garrantzitsuenetariko bat dela jakinda eta horri aurre egiteko ezinbestekoa dela jendartearen ikuspegitik akordioak lortzea, Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, parte hartzeko, hausnartzeko eta adostasunak bilatzeko eremu berriak sustatzen jardun da, parte hartzen duten ikuspegi desberdinen artean konfiantza-sareak sortzeko. Gaiari helduta, orain dela bi urte irakasle, aditu, gizarte eragile eta instituzio ugari zuzendutako sinposio bat antolatu zuten (2021eko urrian). 2022an, gogoetan sakontzeko helburuarekin, jarraipena izan zuen bi foro parte hartzaileetan (ekainaren 4an eta irailaren 17an). Bitarte horretan jasotako ekarpen guztiak “Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua, erronkak kudeatzeko proposamenak” txostenean bildu dira eta larunbatean ezagutzara emango dira EHUren Bizkaia Aretoan, goizeko 9.30etatik aurrera.

Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta **Jokin Bildarratz** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak hasiera emango diote jardunaldiari. **Xavier Bonal Sarrók** (Bartzelonako Unibertsitate



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakítez



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Autonomokoa) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzako desberdintasun sozioespazialei buruzko ikerketa baten emaitzak azalduko ditu. **Begoña Pedrosa Lobatok** (Eusko Jaurlaritza) egingo du sarrera eta **Gemma Zabaleta Aretak** (Eusko Ikaskuntza) moderatuko du ondorengo elkarrizketa.

Ondoren, **Beatriz Akizu Aizpirik** (Eusko Ikaskuntza) eta **Idoia Fernandez Fernandezek** (UPV/EHU) "**Segregazioaren karakterizazioa eta ulermen partekatua: erronkak kudeatzeko proposamenak**" [txostena](#) aurkeztuko dute, aurreko foroetan planteatutako ideia eta proposamen nagusiak laburbiltzen dituen. Dokumentuak segregazioaren definizio eta ulermen partekatua biltzen ditu. Segregazioari aurre egiteko gizarte-itun zabal eta inklusibo baterako gutxiengoak planteatzen ditu, segregazioari erantzuteko, eta lortu nahi diren helburuak lortzeko aurrean ditugun erronkak zehazten dira. Bost erronka nagusi biltzen dira bertan: jendartearen inplikazioa, lidergo politiko partekatua, kulturartekotasuna, formakuntza eta tokian tokiko gobernantza partekatua. Azkenik, identifikatutako erronka horiei erantzuteko kudeaketa-erantzunak proposatzen dira.

Ondoren, eztabaidak txostena izango du hizpide. **Eduardo Ruiz-Vieytezek** (Deustuko Unibertsitatea) eta **Juanjo Falcó Monserratek** (Lleidako Udala) txostenaren gainean egingo dute irakurketa, haien gakoak eta konpondu beharreko arazo handienak azpimarratuz. **Idoia Fernandez Fernandezek** moderatuko du solasa.

Azkenik, mahai-inguruan, "**Zer ekarpen egin daiteke familietatik, komunitatetik, komunikabideetatik?**" galderari buruzko esperientzia eta praktika zehatzak ezagutaraziko dira. **Eider Amundarain Goikoetxeak** (Lardizabal Herri Eskola, Zaldibia), **Tasio Arrizabalagak** (Elhuyar) eta **Irati Urdalleta Letek** (Berria) hitz egingo dute, **Nora Salbotx Alegria** (Amaiurko Eskola) moderatzaile lanetan jardungo delarik.

Jardunaldia ixteko, **Beatriz Akizuk** eta **Begoña Pedrosak** ondorioak eta programaren hurrengo urratsak aurreratuko dituzte.



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakítez



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Oinarrietatik proposamenetara

Segregazioaren karakterizazioa eta ulermen partekatua: erronkak kudeatzeko proposamenak” [txostena](#)k azken bi urtetan prozesuan aritu diren askotariko eragileen gutxieneko adostasunak eta arazoan aurrean kudeatzeko luzatzen dituzten proposamen ildoak biltzen ditu.

Eskola segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua lortu da, eta definizio adostuan azpimarra jarri da eredu-sozioekonomikoak eragiten duen desberdinkerian. Hori dela eta, bat egiten da eskola segregazioa enpirikoki neurtu eta egoeraren tamaina balioesteko indizeak izateko beharrean.

Helburu gisa itun sozial zabala eta barneratzailea irudikatzen da, non administrazioak eta jendarteak estrategia orokor bat abiatu beharko duten eta, euskarak berebiziko garrantzia izango duen, kohesiorako giltzarria izan beharko baita.

Erdiesteko, egungo egoeratik erdietsi nahi diren helburuetara heltzeko bidean aurrean bost erronka nagusi identifikatzen dira eta kudeatzeko proposamenak jasotzen dira:

Jendartearen inplikazioa: Segregazioari buruzko oinarritzko definizio, diagnostiko eta irudikapenak jendarte osoan zabaldu ardura, inplikazioa eta konponbide integrala erdiesteko. Ahots desberdinei tokia egin, pertsona eta kolektibo segregatuei bereziki, eta aurre-iritzi eta pribilegioak deseraiki.

Lidergo politiko partekatua: Segregazioari aurre egitea lehentasun politikoa da, erakunde guztien eta jendarte eremu desberdinen arteko lidergo partekatuan oinarrituta. Bereziki erakunde publikoen ardura da behar diren baliabideak eskaintzea eta politika publiko ausartak bideratzea, bai eta jarraipen publiko eraginkorra ziurtatu, behar denean neurri zuzentzaileak ezarri.

Kulturartekotasuna: Kultur eta hizkuntza desberdinekin begirunetsua den eta aldi berean euskaldundu nahi duen hezkuntza sistema behar da. Aniztasunaren ulermen partekatu berrian euskara eta euskal kultura kohesiorako tresnak izan daitezen Euskal Herri osoan.

Formakuntza: Jarrera pertsonalen azterketa kritikoa egitea beharrezkoa da. Bide laguntza soziohezitzailea eta komunitarioa behar da. Gaiaren



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakítez



inguruko ezagutzan sakontzea komeni da eta horretan unibertsitateak funtsezkoak dira. Formakuntza erronka hauen barruan, kolektibo eta pertsona segregatuen ahotsak kontuan hartu behar dira eta prozesu desberdinen parte izan.

Tokian tokiko gobernantza partekatua: Udalek tokian tokiko erabakiak hartzeko aukera izan beharko lukete hezkuntza formal zein ez-formalari dagokionez. Auzo eta herrien topaguneak sortzea komeni da, eskola bakoitzak bere hezkuntza-proiektua garatu ahal izateko, komunitate-proiektu gisa. Eskola kokatuta dagoen jendarte-ingurune osoari lotutako lankidetzak lortzea da erronka nagusia.

NOTA INFORMATIVA

Rumbo al consenso para dar respuesta a la segregación escolar

- *Eusko Ikaskuntza y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco convocan el 4 de marzo una jornada para responder a la segregación desde el sistema educativo*
- *El informe “Caracterización y comprensión compartida de la segregación, propuestas para la gestión de desafíos” que recoge la voz de la sociedad y las líneas de actuación, será uno de los ejes centrales de la jornada*

Bilbao, 2 de marzo de 2023. Eusko Ikaskuntza y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco han organizado este sábado 4 de marzo la jornada “¿Cómo responder a la segregación múltiple del sistema educativo? Comprensión compartida y propuestas de gestión de retos” que marcará un hito en el proceso de reflexión para hacer frente a la segregación escolar.

Conscientes de que la segregación es uno de los retos más importantes de la sociedad vasca en el siglo XXI y que para afrontarla resulta fundamental alcanzar acuerdos desde una perspectiva de país, Eusko Ikaskuntza en colaboración con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco viene impulsando nuevos ámbitos de participación, reflexión y consenso donde generar redes de confianza entre todas las partes implicadas. Para avanzar en esa tarea, hace dos años se organizó un simposio (octubre de 2021) dirigido a profesorado, personas expertas, agentes sociales e instituciones. En 2022, con el objetivo de profundizar en la reflexión, se continuó profundizando en la reflexión en sendos foros participativos (4 de junio y 17 de septiembre). Todas las aportaciones recibidas durante este periodo han sido ahora recogidas en el informe “Caracterización y comprensión compartida de la segregación: propuestas de gestión de desafíos” y se harán públicas el sábado en el Bizkaia Aretoa de la UPV/EHU a partir de las 9.30 de la mañana.

La presidenta de Eusko Ikaskuntza, **Ana Urkiza**, y el consejero de Educación del Gobierno Vasco, **Jokin Bildarratz**, abrirán la jornada. A continuación, **Xavier Bonal Sarró**, de la Universidad Autónoma de



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakítez



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Barcelona, expondrá los resultados de un estudio sobre “Desigualdades socio-espaciales en la educación en la Comunidad del País Vasco”. **Begoña Pedrosa Lobato** (Gobierno Vasco) realizará la introducción y **Gemma Zabaleta Areta** (Eusko Ikaskuntza) moderará la entrevista posterior.

A continuación, **Beatriz Akizu Aizpiri** (Eusko Ikaskuntza) e **Idoia Fernandez Fernandez** (UPV/EHU) presentarán el [informe](#) “**Caracterización y comprensión compartida de la segregación: propuestas de gestión de desafíos**” que sintetiza las principales ideas y proposiciones planteadas en los anteriores foros. El documento recoge una definición y comprensión consensuada de la segregación. Se plantean unas primeras bases para un pacto social amplio e inclusivo con el que hacer frente a la segregación, y se concretan los retos a que nos enfrentamos para lograr los objetivos perseguidos. Son cinco los grandes retos planteados: implicación social, liderazgo político compartido, interculturalidad, formación y gobernanza local compartida. Por último, se plasman propuestas para la gestión de los retos identificados.

A continuación, el debate se centrará en dicho informe. **Eduardo Ruiz-Vieitez** (Universidad de Deusto) y **Juanjo Falcó Monserrat** (Ayuntamiento de Lleida) harán la lectura sobre el mismo, incidiendo en sus claves y en los mayores problemas a resolver. **Idoia Fernandez Fernandez** moderará dicha conversación.

Por último, en formato de mesa redonda, se darán a conocer experiencias y prácticas concretas en torno a la pregunta “¿Qué aportación se puede realizar desde las familias, la comunidad, los medios de comunicación?”. Dialogarán **Eider Amundarain Goikoetxea** (Lardizabal Herri Eskola, Zaldibia), **Tasio Arrizabalaga** (Elhuyar) e **Irati Urdalleta Lete** (Berria), con **Nora Salbotx Alegría** (Amaiurko Eskola) como moderadora.

Para cerrar la jornada, **Beatriz Akizu** y **Begoña Pedrosa** presentarán las conclusiones y realizarán un avance de los próximos pasos del programa.



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakítez



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

De la base a las propuestas

El [informe](#) “**Caracterización y comprensión compartida de la segregación: propuestas de gestión de desafíos**” recoge los consensos esenciales de los diferentes agentes que han participado en el proceso en los últimos dos años y las líneas de propuesta para la gestión de los retos.

Se ha llegado a una caracterización y comprensión compartida de la segregación escolar, y en la definición consensuada se ha puesto el acento en la diferenciación que genera el modelo socioeconómico. Por ello, se comparte la necesidad de medir empíricamente la segregación escolar y disponer de índices que valoren la magnitud del fenómeno.

Como objetivo se presenta un pacto social amplio e inclusivo, en el que la administración y la sociedad pongan en marcha una estrategia global y en la que el euskera sea el elemento clave para lograr la cohesión.

Para lograrlo, se identifican cinco retos principales a la hora de llegar a los objetivos que se pretenden alcanzar desde la situación actual y se recogen toda una serie de propuestas de gestión:

Implicación de la sociedad: Consensuar una definición, diagnóstico y representación básica de la segregación para conseguir la responsabilidad, implicación de la sociedad y una solución integral. Se demanda dar cabida a diferentes voces, especialmente a personas y colectivos segregados, y deconstruir prejuicios y privilegios.

Liderazgo político compartido: Hacer frente a la segregación es una prioridad política, basada en un liderazgo compartido entre todas las instituciones y los distintos ámbitos sociales. Fundamentalmente, es responsabilidad de las instituciones públicas ofrecer los recursos disponibles e implantar políticas públicas valientes, así como asegurar un seguimiento público eficaz, implantando medidas correctoras cuando sea necesario.

Interculturalidad: Se precisa un sistema educativo que sea respetuoso con las distintas culturas y lenguas y, al mismo tiempo, tenga la euskaldunización entre sus objetivos. El euskera y la cultura vasca han de ser herramientas de cohesión para la comprensión compartida de la diversidad en todo Euskal Herria.

Formación: Es necesario un análisis crítico de las actitudes personales. Se precisa asistencia socio-educadora y comunitaria. Conviene profundizar en el conocimiento sobre esta cuestión y las universidades



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakítez



son vitales para ello. En estos desafíos formativos, hay que tener en cuenta las voces de colectivos y personas segregadas e implicarlos en los distintos procesos.

Gobernanza local compartida: Los ayuntamientos deberían poder tomar decisiones locales tanto en materia de educación formal como no formal. Conviene crear espacios vecinales y municipales para que cada centro escolar pueda desarrollar su propio proyecto educativo, como proyecto comunitario. El objetivo principal es lograr la cooperación de todo el entorno social en el que se encuentra ubicado el centro.